

Zikuñagako Ama,

mirariaren zain

■ Leire Goñi



Garai batean zikoina asko ibiltzen zela eta, *Ciconia-aga* izena hartu omen zuen inguruak. Hala xe dio P. Pierre Lhande poetak "El molino de Hernani" obran. Zikoi- nek alde egin zuten ordea, enpresek lekua hartu ahala. Zikoinen atzetik, ihesean abiatu ote zen Zikuñagako Ama Birjina beltza ere? Zikuñagako Amaren Aldeko Komisioko kideek pistak bildu dituzte, eta Hernaniko patroia dena laster bere lekura ekarri ahal izango dutela uste dute.

Lehenago ere jaso ziren gutun gehiago egunkarietan, baina 1979ko Ostegun Santu gauean Zikuñagako Amaren irudia desagertu zenetik, areagotu egin ziren beren kezka eta kexak adierazi nahi zituzten hernaniarren karta eta artikulak. Horietako batean esaten da Zikuñagako Amak bere baitan gordetzen dituela hiru altxor preziatu: hernaniarrek duten beraganako debozioa, irudia beraren garrantzia, eta ermitak behinola izandako "harri urdineko" sarrera-atea.

Irudia eta ermita desagertu ziren, baina hernaniarren debozioak bizirik dirau, eta Komisioko kideek lanean jarraitzen dute, Hernaniko historiari horren loturik egon den Ama Birjinak bere lekua berreskura dezan. Azken urte honetan ikerketa sakona egin dutela ziurtatu dute, eta laster, Zikuñagako Amaren eta ermitaren desagertpenaren atzean ezkutuko tratu bat egon zela frogatzeko moduan izango direla uste dute.

Mendetako historia.

Benetan noizkoak diren ez badakigu ere, Zikuñagako Amari eta ermitari egiten zaizkien lehen erreferentziak 1529koak dira, Antxon Agirre Sorondok "La ermita de Zikuñaga" monografikoan jasotakoaren arabera. 1529ko irailaren 23ko data duen testamentu batean, "Jn. Myn. de Arreguiren emazteak, Maria Oso de Echeberriak, bi duket eman zituen *Ernanyko* San Juan elizarantzat, *Cicuñagarentzat*, San Martinentzat, Santa Barbararentzat eta Santa Cruzentzat".

Urte bereko urriaren 5ean, Maria Lopez de Galarretak, Martin Arano de Ayerdiren alargunak, beste gauza batzuen artean bi erreal ematen ditu "Zikuñagako gure amaren obra eta luminarako".

Zikuñagari egindako
lehen erreferentziak
1529koak dira,
eta irudia XIII.
mendekoa da.

Zazpietako bat.

Ama Birjinaren irudiak berak ere, baditu berezi egiten duten ezaugarri batzuk. Pedro Anasagasti frantziskotarraren iritziz, irudia XIII. mendekoa da. 68 zentimetroko luzera du, eta benetan bitxi egiten duena, kolorea da; Zikuñagako Ama, Euskal Herriko zazpi Ama Birjina beltzetako bat baita. Kolore horren arrazoiaren inguruan ere, uste bat baino gehiago zabaldu da.

Luis Pedro Peña Santiagok idatzitako "Las siete Vírgenes Negras de Gipuzkoa. La ruta mágica" liburuan Ataungo San Sebastian ermitatik irten ziren zazpi Ama Birjinen elezaharra aipatzen da. Horren arabera, erromanikotik gotikorako trantsizio garaikoak ziren eta elkarren artean ahizpak ziren zazpi Ama Birjina beltz misteriotso, Ataungo San Sebastian ermitan bizi izan ziren. Gau batez, agindu zerutiar bati jarraiki, zazpi Ama Birjina beltzak Done Jakue bideko parte ziren puntuetan barreiatu ziren. Zaharretik gazteenera, Ama Birjina horiek ondorengoak dira: Irungo Juncal, Debako Itziar, Hernaniko Zikuñaga, Urretxuko Zabaleta, Hondarribiko Guadalupe, Aretxabaletako Zabale eta Donostia-ko Coro.

Luis Murugarren Zamora historialariaren ustez, berriz, irudia Hernaniko bailaran garrantzia handia zuen *Alcega* jaunak eta bere gizonek ekarri zuten hegoaldeko lurralderen batetik, kanpaina militar batetik itzulitakoan.

Zikuñagako Amak gordetzen duen azken berezitasuna eskuineko eskuan heldzen duen fruituaren ingurukoa da. Azken urteetan fruitu hori granada bat zela ziurtatzen zuten, baina Lizarralde 1926an argitaratutako "Andra Mari" monografikoan kontatzen denaren arabera, fruitu hori, jatorrian behintzat, sagar bat zen. Zikuñagako Ama, "Sagarren Ama Birjinetako bat" zela esaten zen; eskuineko eskuan sagar bat heldzeagatik deitzen zitzaien horrela. Baina Zikuñagako Amaren irudiari sagarraren lekuan granada bat jarri zioten 1947an zaharberritzean.

Sinesmen eta jaiak.

Urte luzeetan hernaniarrek eta inguruko herrietako biztanleek maitasun handia izan zioten Zikuñagako Amari. Testamenduetan berare-



kin oroitzeaz gain, hainbat festa eta gurtze erritu ospatzen ziren garai batean bere omenez.

Horietako asko gogora ekarri zituen Jose Ignacio Echeverriak, Zikuñagako ermitako ermitauak eta azken seroraren senarrak, Antxon Agirre Sorondoren "La ermita de Zikuñaga" obrarako. Garai batean egunero izaten omen zen meza Zikuñagan eta, batzuetan, baita hiru meza egun berean ere.

Ospakizunak ere ez ziren gutxi izaten. Santa Cruz egunean, maiatzaren 3an, eguneko lehen mezaren aurretik elorria bedeinkatzen zen ermita atarian. Elorri horrekin, eta Erramu egunean bedeinkatutako erramuarekin gurutze zaintzaile bat egiten zen. Gurutze hori etxeetako ateetan jartzen zen, edota babestu behar zuen lur-saila zaintzeko, makila bati lotu eta hura lurrean sartuta uzten zen. Kasu horretan, gurutzea zeraman makila hori *Ascensio* egunean sartzen zen lurrean, 40 kredo errezzatu bitartean. Poltsikoan 40 arto edo babarrun ale gordetzen zituzten, kredo bakoitza errezzatzean lurrera botatzeko.

Santa Cruz eguna eta irailaren 14a bitartean, berriz, erregu mezak ospatzen ziren asteartero,

sinestunek jarritako diruari esker. Horietan, "harriaren kontrako babesa" eskatzen zen, hila-bete haietan zehar ohikoa izaten baitzen baratzak suntsi zitzakeen kazkabarra.

Irailaren 8a.

Egunik handiena hala ere, irailaren 8an ospatzen zen, Zikuñagako Amaren egunean, hain zuzen. Bezperan jada, asko izaten ziren ermitara inguratzen ziren erromesak. Festa ordea, egunean bertan hasten zen, goizeko 7etan eskaintzen zen lehen mezarekin. Meza nagusia, goizeko 10etan izaten zen, eta bertan izaten ziren herriko agintariak ere. Ondoren, ermitaren kanpoaldean, bertsolariak, trikitilariak eta txistulariak aritzen ziren giroa alaitzen. Echeverriatarrek ere, argi batzuk jartzen zituzten kanpoan, eta oilo-salda eta haragi egosia (edo ahal zenean, zezen-buztana) eskaintzen zituzten tabernan.

Inguruan postuak jartzen ziren, bokadiloak, edariak, errokilak eta beste hainbat gauza saltzeko. Zaldi batek tiraka ekartzen zuen karroarekin etortzen zen emakumea ere urtero gerturatzeko, errokilak eta mahatsak saltzera.

Urnietatik, berriz, urtero joaten omen zen "Josekus" ezaguna. Betiko txaleko berarekin etortzen zen, eta errifak saltzen zituen. Irabazleari, inguruko postuetan saltzen zirenak baino handiagoak ziren erroskilak oparitzen zizkion.

Ezer antolatu beharrik gabe, ospakizunek aurrera egiten zuten, jendeak jartzen zuen borondate eta gogoari esker. Festa bi edo hiru egun luzatzen zen; neska gazteak izaten ziren gaueko ordu txikietan etxean izaten ziren bakarrik.

40ko hamarkadan Udalaren kontura, txistulariak, aguazil bat eta udaltzain bat bidaltzen hasi ziren festara. Baita Ezpata-dantza eta Makiladantza dantzatzeko talde profesionalak ere. Gerra Zibilaren ondoren, Zikuñagako Amaren eguneko ospakizunak kontu handiz antolatzeak ohitura hartu zen, ezustekorik gerta ez zedin, eta horrela, egunak jatorriz izaten zuen festa giro natural hori galtzen joan zen pixkanaka.

Errituak.

Hernaniarrek Zikuñagako Amari zioten debozioa handia zen, eta bere inguruan sendatzeko lau gurtze erritu egiten ziren, Echeverria ermitauak gogoratzen duenaren arabera.

Ama Birjinaren kapa edo mantalarekin egiten zen erritu horietako bat. Mantala horrek Zikuñagako Ama estaltzen zuen, baina etxean norbait gaixorik zuenari manta hori uzten zitzaion. Manta gaixoaren ohe gainean jartzen zen, eta gertatu beharrekoa gertatzen zen: Jainkoak hala nahi bazuen, gehienez ere 3 egunetan gaixoa hil egiten zen; bestela sendatu egiten zen. Beraz, mantaren trukean meza bat egiten zuen gaixoaren familiak, hura sendatu zela ospatzeko edo hileta elizkizuna ospatzeko.

Bigarren erritua, *arria-gañekoa* deitua, hizketarako zailtasuna zuten haurrentzako izaten zen. Serorak haurra besoetan hartu eta aldare-harriaren gainetik pasatzen zuen, kredoa eta bi aitagure erreztatzen zituen bitartean. Haurrak negar eginez gero, buruz-behera jarrita, erritua errepikatu egiten zen.

Erriturik ezagunena, berriz, ermitako paretako zuloarena da. Zulo hori Ama Birjinaren irudia zegoen horma-hobiaren azpian zegoen. Bertan

burua sartu eta kredoa erreztatuz gero, urte osoko buruko minak uxatzen ziren. Echeverria ermitauaren arabera, erritu hau jentilen garaikoa zen; konfesatzeko erabiltzen omen zuten.

Azken erritua, berriz, olioaren zen. Ermitako olio-lanparetako olio ona izaten omen zen haur jaioberrien zilbor-hesteko zauria ixteko. Olio horren truke, oliba olio litro erdi bat edo hiru laurden ematen ziren ermitarako.

Zikuñagako Amaren inguruan
lau gurtze erritu egiten ziren:
kapa edo mantalarena,
arria-gañekoa,
paretako zuloarena
eta olioarena.

Bizikidetzak arazoak.

Ezin uka daiteke Zikuñagako Amari debozio handia izan diotela hernaniarrek eta inguruko herrietako biztanleek, eta debozio hori noiz sortu ote zen ziur ez badakigu ere, mende batzuetan zehar bizirik mantendu dela argi dago. Era berean, Zikuñagako Paper Fabrikak ere garrantzia handia izan du herrian. Baina nonbait, ez zegoen nahikoa leku denentzat.

Zikuñagako Paper Fabrika 1935. urtean sortu zen Zikuñaga auzoan, ermitaren altzoan. Herri-tar askok lortu zuen bertan lanpostua, eta goxoki oroitzen dituzte lanean pasatako urteak.

Hala ere, ermita eta Paper Fabrikarentzako nahikoa leku ez, eta 1949. urtean lehen arazoak sortu ziren, orduan arazo gisa ikusten ez baziren ere. Ermita eta Goizuetako errepidea lotzen zituen bidea zeharkatzea beharrezkoa zen paper fabrikara iristeko, eta horrexegatik, bide hori Fabrikaren interesekoa zela eta, jabetza-publikoko eremu gisa izendatzea eskatu zioten Udalari. Honek eskakizuna onartu zuen 1950eko martxoaren 7an.

Horrela, bidea denek erabiltzen zuten. Are gehiago ermitara gerturatzen zirenek. Izan ere, Zikuñagako Ama gurtzera jende asko joaten zen



SANCTI SEBASTIANI

Clerus, magistratus ac fideles loci valgo appellati "Hernani", Dioecesis Sancti Sebastiani in Hispania, ad pedes Sanctitatis Suae provoluti, humiliter postularunt, in memoriam huius Anni Mariani, ut Beatam Mariam Virginem "de Zikuñaga", cuius imago in Sanctuario Eidem dicato religiosissime colitur non solum a loci incolis, verum etiam a finitibus, Caelestem apud Deum praecipuam Patronam ipsius loci "Hernani" constituere ac declarare benigne dignaretur. Sacra porro Rituum Congregatio, vigore peculiarium facultatum sibi a Sanctissimo Domino nostro PIO PAPA XII specialiter tributarum, attentis expositis necnon Exc.mi ac Rev.mi Episcopi Sancti Sebastiani commendatione, benigne annuit pro gratia iuxta preces, et B.M. Virginem "de Zikuñaga" principalem apud Deum Patronam loci "Hernani", omnibus adiectis iuribus et privilegiis liturgicis locorum Patronis praecipuis rite competentibus, constituit ac declaravit. Contrariis non obstantibus quibuscumque.

Romae, die 26 Octobris 1954.

Christiano Tard. Ticoynau
J. R. C. Praef.

L. Alarín, Archiep. Obispani, B.C. a secretis

Apait, agintari ta Ernani'ko ermitarrak, Aita Santua'ren oñetan auspezturik, eskatu dute apal-umilki, Ama Birgine ri eskeñitako Urte Santuaren omenoz, Zikuñagako Ama, erri'ko Zainda' Nagusi aukeratua izan dedilla; bere irudi Ernani ta inguruko errietan debozio bereziz goratua dal ko.

"Sagrada Congregación de Ritos" deritzaion batzarrak, Pio XII'garren Aita Santuak emandako eskubidez, erriare gogoa ta Donostiko Obispo Jaunaren iritzia egoki irudi tuñ zaiolako, ontzat eman du berari egin zaion eskaria, ta erabaki du Zikuñaga'ko Ama Birgine erriaren Zaindar Nagusia izan dedilla Jaunaren aurrean.

Erriko Zaindari aukeratu izan dalako Zikuñaga'ko Amar eskeñiko zaizkio beste errietan Zaindari Nagusiari eskeintzen zaizkion omenak da Elizkizunak.

Cioma 1454'ko willam oñetan
willam bideratu

1954ko urriaren 26an Zikuñagako Ama Hernaniko Patroi edo Herriko Zaindari izendatu zeneko agiriak: latinez eta euskaraz.

oraindik ere, eta horrexegatik, eta herritarrek hala eskatuta, 1954ko urriaren 26an Hernaniko Patroi edo Herriko Zaindari izendatu zen Zikuñagako Ama Birgina, Donostiako obispoaren gomendioz eta Pio XII.a Aita Santuaren eskumenez.

Ezkutuko jokoak.

Zikuñagako Paper Fabrika handituz joan zen urte haietan zehar, eta gero eta leku gehiago behar zuen. Gauzak horrela, 1973an urte batzuk lehenago Fabrikak hala eskatuta Udalak jabetza-publikoko eremu gisa izendatutako bide hura, desagerrarazi egin zuen Fabrikak berak. Udalak kexa jarri zuen, eta Iruñeko Lurralde Audientziak Udalaren alde egin zuen, bide hori jabetza publikoko eremu zela berrezarrit. Paper Fabrikak orde, errekurtsioa jarri zuen Gorenean, eta honek ere Udalaren alde egin zuela susmoak badira ere, oraindik ez da datu hori argitara eman.

Urtebete beranduago, berriz, uztailaren 4an hain zuzen, Paper Fabrikako ordezkari Jaime Echeverria Arbonak eta Donostiako Elizbarrutiko Bikario Jose Elgarresta Iturbek tratatu bat itxi zuten: ermita zegoeneko lur-eremua saldu egiten

zaio Paper Fabrikari. Hurrengo egunerako tratatu haren inguruko zurrumurruak herrian barna zabaldu ziren eta Udalak Elgarresta Bikarioari galdegin zion. Herritarrek ez zeuden pozik tratatu harekin, batetik, guztien bizkar egin zelako eta, bestetik, ermitaren lur-eremu hura ez zelako Donostiako Elizbarrutiaren jabegokoa, baizik eta Hernaniko parrokiakoa, 1928ko urriaren 23an Martin Urrutia Ezkurak notario aurrean donazio gisa emana.

1974ko uztailaren 4an
Paper Fabrikako ordezkari
Jaime Echeverria Arbonak eta
Donostiako Elizbarrutiko Bikario
Jose Elgarresta Iturbek
tratatu bat itxi zuten: ermita
zegoeneko lur-eremua saldu
egiten zaio Paper Fabrikari.


Elgarrestak onartu egin zuen tratua egin zuela. Kontu apaiztiarra zela eta gorde omen zuten isilpean. Herritarrek are gehiago haserretuko zituen datu bat eman zuen gainera: proiektu hura 11 urte lehenagoko zela, alegia; bera Hernaniko parrokoa zenekoa eta Lorenzo Bereziartua Gotzaina bisitan etorri zeneko garaikoa, hain zuzen. Nonbait, urte guzti haietan Paper Fabrika isilik mantendu bazen ere, ezkutuko lanean aritu zen. Izan ere, Elgarresta parrokoak eta Bereziartua Gotzainak ermita leku berri batera eramateko asmoa erakutsitakotan, Paper Fabrikak interes handia azaldu zuen. Baina Elgarresta parrokoa Donostiara mugitu omen zuten, eta salerosketaren kontua ahanzturan erori omen zen 1973 inguruan berriro heldu zioten arte. Azkenik, 1974ko uztailaren 4an burutu zen aipaturiko salerosketa. Zikuñagako Paper Fabrikak 7.704.000 pezeta ordaindu zituen: 2.400.000 pezeta ermita birkokatzeke balioko zuten Andola baserriaren terreno batzuen truke, eta beste 5.304.000 pezeta ermita zegoeneko terrenoaren eta honen berreraikitzea ordaindu ahal izatearen truke. Gerora, Andola baserriko terreno harien orde, Iparburukoak aukeratuko ziren ermita berreraikitzeke.

Hura guztia jakin eta bi egun geroago, 1974ko uztailaren 8an, Udalak ezohiko plenoa deitu zuen, salerosketa haren kontra agertzeko. Herritarrek ere beren desadostasuna agertu nahi izan zuten, eta 1.304 firma bildu zituzten; 465 Kaxkoan, 89 Osiñagan, 695 Zikuñagan eta 55 beste hainbat lekutan.

**Herritarrek ere beren
desadostasuna agertu
nahi izan zuten, eta
1.304 firma bildu zituzten.**

Tentsioa gero eta handiago egin zen. Udalaren eta Gotzaintzaren artean karta truke handia izan zen, baina ez zen kontua argitzea lortu. 1977an, dagoeneko Don Jose Maria Setien Gotzain zela, eskutitz trukeari ekin zitzaion berriro, baina Udalak ermitaren salerosketaren aurkako jarrera berretsi zuen.

Zikuñagako ermita, Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga enpresako eremuaren barruan (1978).




Azken kolpea.

Denbora aurrera zihoan, eta ez zirudien arazoa konpontzeko modurik aurkituko zenik. Eta konpondu ez, areagotu egin zen. Askok dira 1979 Ostiral Santu eguna, apirilaren 13a hain zuzen, ezkerreko hankarekin hasi zutenak. Izan ere, 1979ko apirilaren 12tik 13rako gauean, Ostegun Santutik Ostiral Santurako gauean, Zikuñagako Ama Birjina desagertu egin zen.

**1979ko apirilaren 12tik 13rako
gauean, Ostegun Santutik
Ostiral Santurako gauean,
Zikuñagako Ama Birjina
desagertu egin zen.**

1987ko ekainaren 23an Gobernu Batzordea bildu zen Hernaniko Udalean, eta ermita botatzea onartu zen, beste leku batean berreraikitze-ko baldintzarekin. Ekainaren 23tik uztailaren 10era bitartean aritu ziren Ermitako fatxadako harriak kendu, katalogatu eta jasotzen, eta ermitaren gainontzekoa botatzen. Harriak Zikuñagako Paper Fabrikan omen daude oraindik, ermita berreraiki zain.



1987an, ermita botatzeko baimena; Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga, S.A.k 3 milioi pezetako ordainketa egin zuen.

Komisioa lanean.

Urte hauetan guztietan, Zikuñagako Paper Fabrikaren eta ermitaren arteko tirabira honetan ermita eta Ama Birjinaren alde egin dute herna-
niarrek. Horrela, Zikuñagako Amaren Aldeko Komisioak beti susmatu izan du ezkutuko tratu-
ren bat izan zela, salerosketaren, Ama Birjinaren
desagerpenaren eta ermita botatzearen atzean.

Hasteko, "Erik el Belga" lapur ezagunak ez
zuela irudia lapurtu defendatu dute beti. Azken
urteetan Komisioak egindako lanari esker, jakin
dute guardia zibilak erregistratuta dituela artelan
sokratuen lapur ezagunaren ibilerak, eta Espai-
niako Estatuan egindako 600 lapurreta horieta-
koen artean ez dago Zikuñagako Amarena. Gai-
nera, irudiaren desagerpena ez zuela inork salatu
jakin dute, garaiko erregistro guztiak arakatu
ostean. Era berean, lapurretaren berri gurutze-
bidetik bueltan zabaldu zen herrian, eta apaizak
momentu hartan izandako jarrera susmagarria
izan zela diote batzuek.

Gotzaintza lapurreta haren jakitun
eta, agian, partaide izan zela froga
dezakeen agiri baten berri izan dute.

Laster, Zikuñagako Amaren eta
ermitaren desagerpenaren atzean
ezkutuko tratu bat egon zela
frogatzeko moduan izango direla
uste du Komisioak.

Gauzak horrela, Gotzaintza lapurreta haren
jakitun eta, agian, partaide izan zela ere salatu
dute behin baino gehiagotan eta, orain gutxi, hori
froga dezakeen agiri baten berri izan dute. Badi-
di, eskutitz itxurako dokumentu horretan Zikuña-
gako Amaren irudiaren mantentze-egoeraz hitz
egiten dela, lapurtua izan ondorenean ere. Orain-
dik ez dute eskutitz hori eskuratu, baina behin lor-
tuta, Komisioaren asmoa ez da jada, inor salatzea.
Azken helburua guztia argitu, Ama Birjina aurkitu
eta ermita berreraikitzea dira, Hernaniko herriak
bere zaindaria berreskura dezan.